

## BORONDATEZKO AURREIKUSPEN SOZIALAREN (BASE) TERMINOEN GLOSARIOA

[A](#), [B](#), [D](#), [E](#), [F](#), [G](#), [H](#), [I](#), [K](#), [L](#), [M](#), [N](#), [O](#), [P](#), [S](#), [T](#), [Z](#)

### A

**Administrazio-gastuak** (*Administrative charges*) Aurreikuspen-planak kudeatzeko BASEak egiten dituen gastu guztiak, zuzenak zein zeharkakoak. Horien artean daude baloreen salerosketan bitartekari izateagatik [ondareen kudeatzaileari](#) egindako ordainketak, erakunde [gordailuzainari](#) ordaindutako komisioak, [kontu ikuskariei](#) eta aktuarioei egindako ordainketak eta gobernu-organoen funtzionamenduaren beste gastuak. Arauek gehieneko kopuru bat ezartzen dute gastu mota horietarako, eta ezin dute gainditu aurreikuspen-planaren diru-bilketaren edo ondarearen ehuneko jakin bat.

**Agintaritza gainbegiralea** (*Supervisory authority*) [BASE](#)ak, mundu osoko [pentsio-funtsak](#) bezala, administrazioaren kontrol eta gainbegiratze bereziaren pean daude, ematen dituzten gizarte-estalduren arabera. Eusko Jaurlaritzak gainbegiratzen ditu BASEak.

**Aktiboa(k)** (*Asset(s)*) BASEaren jabetzakoak diren eta diru-balioa duten ondare eta eskubide guztien multzoa. Ondasun materialak –aktibo higiezinak, esaterako–, edo elementu immaterialak –finantza-aktiboak, esaterako– izan daitezke. Ondarearen balioak da.

**Aktiboen esleipena** (*Asset allocation*) BASEen ondarearen dibertsifikazioa edo osaera, inbertsio-mota desberdinen artean: akzioak, bonoak, likidezia, higiezinak eta bestelako aktibo batzuk.

**Aktuariala (Kalkulu...)** Ikus: [Balorazio aktuariala](#)

**Aktuariora** (*Actuary*) Pentsioengatik egungo eta etorkizuneko konpromisoak ebaluatzeko erantzukizuna (gutxienez) duen pertsona edo entitatea, aurreikuspen-planaren finantza-kaudimena egiaztatzeko, egun onartuta dauden kontabilitate-metodoak eta metodo aktuarialak jarraituz.

**ALM (Aktiboen eta pasiboen arteko egokitzapena)** (*Asset/Liability Matching*) Inbertsio-printzipioa; haren arabera, balio-zorroen osaerak, hau da, aurreikuspen-planaren [aktiboek](#), kongruenteak izan behar dute plan horren [obligazioen](#) izaera eta iraupenarekin. Aktiboen eta pasiboen ezaugarriak batuz errentagarritasunaren eta arriskuaren oreka optimizatu nahi da.

**Alarguntza eta zurztasuna** (*Widow and orphan risk*) BASEen estaldura izan ohi duten gertakizun eta [arrisku biometrikoetako](#) bat. Bazkide baten onuradunei ordaintzen zaie, hura hiltzen bada. Pentsioa edo aldi batean egiten den ordainketa izan daiteke. Heriotza erretiroagatik prestazioaren ondoren edo bazkidea aktibo dagoela gerta daiteke.

**Arrisku biometrikoak** (*Biometric risks*) Biziaren inguruan pertsonak dituzten arriskuak: bizi-itxaropena, heriotza, ezintasuna eta biziraupena. BASEek [estaltako gertakizunak](#) izan ohi dira.

**Arrisku-prima** (*Risk Premium*) Finantzen esparruan, inbertsoreak, aktibo ziur batean inbertitu ordez —adibidez, zor publikoa—, aktibo hegazkor batean inbertitzeko eskatzen duen errentagarritasun soberakina da.

**Atxikimendu-buletina** (*Joining form*) BASEko bazkideak arautegian ezarritako baldintzen arabera [aurreikuspen-planari](#) atxikitzeko egiten duen adierazpena da. Agiri horretan bazkidearen datu pertsonalak jasotzen dira, baita ekarpenen plana eta hark izendutako [onuradunak](#) ere, arautegiaren laburpenaz gain.

**Auditoretza-txostena** (*Audit report*) Ikus: [Kontu-ikuskaritza](#)

**Aukera-kontratua** (*Options*) Kontratu hori [finantza-tresna eratorria](#) da, norbaitek dirukopuru bat ordaintzen du etorkizuneko data jakin batean ondasunak edo eskubideak prezio jakin batean erosi edo saltzeko eskubidea izateko. Dena dela, ondasun horiek ez dira nahitaez erosi behar.

**Aurreikuspen plana** (*Pension plan*) Aurreikuspen-planak ekarpenen eta prestazioen araubidea egituratu eta arautzen du estaltzen dituen gertakizunetarako: erretiroa, ezintasuna, heriotza, langabezia eta gaixotasuna, horiek eskuratzeko baldintzak zehazteaz gainera. Aurreikuspen-planak [arauegietan](#) formalizatzen dira, eta [kapitalizazioa](#) izango da horiek finantzatzeko sistema. Euskal Autonomia Erkidegoko figura hori bat dator [pentsio-planen](#) nazioarteko figurarekin.

**Aurreikuspen planaren aktiboak** (*Pension assets*). Aurreikuspen-plan jakin bat finantzatzeko esleitutako aktibo guztiak.

**Aurreikuspen planaren arautegia** (*Pension scheme regulations*) Dokumentu bat da, eta bertan honako gai hauek definitzen dira: [aurreikuspen-plana](#) eratu deneko pertsonen erretiroa, biziraupena, baliarezintasuna, gaixotasun larria edo luzaroko langabeziagatik errentak edo kapitalak jasotzeko duten eskubidea; planari nahitaez egin beharreko ekarpenak; eta ondarearen eraketa eta funtzionamendurako arauak.

**Autoinbertsioa** (*Self-investment*) BASEren ondarearen zati bat bazkide babesle edo sustatzailearen aktibo edo balioetan inbertitzea, esate baterako, enpresaren akzioak erostea, hari mailegu bat ematea, edo, baldintza jakin batzuetan, ondasun bat haren esku jartzea. Arau gehienetan, planaren aktiboen ehuneko bost bakarrik inbertitu daiteke modu horretan.

**Azpiplana** (*Subplan*) [Enpleguko aurreikuspen plan](#) edo [aurreikuspen-plan profesional](#) baten barruan hainbat giza talderentzako bestelako ekarpen eta prestazioak dituzten azpiplanak izan daitezke. Hitzarmen kolektiboaren bidez ezarri beharko dira, eta planaren arautegian jaso.

## **B**

**Baja** (*Withdrawal*) Bazkide baten baja gertatzen da, hura hiltzen denean, erabateko [erreskatea](#) egiten duenean edo planez aldatzen denean.

**Balio zuzena** (*Fair value*) Aktibo batek erosle baten eta saltzaile baten artean eskuz aldatzeko izango zuen prezioa, bietako inor erostera edo saltzera behartuta egon gabe, eta biek aktiboaren ezaugarri nagusiei buruzko behar adinako ezagutza izanik. Aktiboak baloratzeko kontularitza-irizpide hori [merkatuko prezioaren](#) edo [erosketa prezioaren](#) ordez erabili daiteke.

**Balorazio aktuariala** (*Actuarial valuation*) Ezarrita dauden metodoak erabiliz aktuario batek egiten duen balorazioa; horren bidez aurreikuspen planeko aktiboen balioa konprobatzen da, eta planeko obligazioenekin (pasiboa) alderatzen da. Aktuarioak enplegatzaileen eta bazkideen [ekarpenak](#) izango direnak kalkulatzeko, jendeak bere [prestazioak](#) lortzen dituzten planean behar adina diru izan dadin. Prestazio zehaztuko planek aldizka egin behar dituzte.

**Balore higigarrietako inbertsio-funtsak** (*Collective investment schemes*) Finantza-aktiboen inbertsio-funtsa da, partaidetzak erosiz herritarrei inbertitzeko aukera ematen diona. Funtsak inbertitzaileen dirua erabiltzen du inbertsioak egiteko. Fondoaren kudeatzaileak egunero fondoaren ondare-aktiboak baloratu ohi ditu, eta fondoaren partaidetzarako prezio berria ezartzen du.

**Banakako aurreikuspen-plana** (*Individual pension plan*) Finantza- edo aseguru-erakunde batek sustatuko plana: kutzak, banketxeak, aseguru-konpainiak. Plan horietara atxikitzen zaizkie, banaka, pertsona fisikoak, eta bazkidearen aktiboak izaten ditu, banakako kontu gisa. Plan horietan ekarpenak bazkideak egiten ditu soilik.

**Banakako BASE (modalitatea)** (*Individual pension fund*) Banakako aurreikuspen planak dituen BASE.

**Banakako kapitalizazioa** (*Individual capitalization*) Bazkideen ekarpenak banan-banan kalkulatzeko, pertsona bakoitzaren ezaugarriak (adina, sexua, egoera zibila, eta abar) kontuan hartuta, planaren ondorioz sorrarazitako prestazio-eskubideak ordaintzeko erabiliko den ondarea lortzeko.

**Banakako sistema edo modalitatea.** Ikus: [Banakako aurreikuspen-plana](#)

**Banaketa-sistema** (*Pay-as-you-go (PAYG) system*) Ordaintzeko bidean dauden prestazioak epe horretan bertan jasotzen dituen kotizazioen bidez finantzatzen dituen finantzazio-sistema. Pentsio-sistema publiko gehienek —adibidez, Espainiakoak— erabiltzen duten sistema da. Belaunaldien arteko kontratu soziala eskatzen du, eta horren bitartez lan egiten ari diren langileek erretiratuen pensioak ordaintzen dituzte. Horren aldean [kapitalizazio](#) sistema dago; izan ere, horretan aktiboen kotizazioak metatu egiten dira, etorkizunean jasoko dituzten prestazioak ordaintzeko.

**Barne funtsak** (*Book reserved pension plans*) [Bazkide babeslearen](#) egoera-balantzean [enpleguko aurreikuspen-planaren](#) prestazioetarako hornidura gisa edo erreserba gisa agertzen diren kopuruak. Aktibo batzuk kontu bananduetan eduki daitezke prestazioak finantzatzeko, baina, legez edo kontratuz, ez dira pensio-planaren jabetzako aktiboak. ELGEko herrialde gehienek ez dute finantzazio-metodo hori baimentzen. Baimentzen dutenek plan horiek planaren sustatzailearen porrotaren aurka aseguraturata egon daitezela exijitu ohi dute, kaudimen gabeziagatiko berme-konpromiso baten bitartez. Gure kasuan soilik bankuetan, aurrezki-kutxetan, aseguru-konpainietan eta ikuskapen bereziko bestelako erakundeetan daude baimenduta.

**BASE (Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitatea)** (*Mutual provident society*) Irabazi asmorik gabeko entitate pribatua, borondatezkoa eta gizarte-arlokoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan derrigorrezko Gizarte Segurantzaren osagarri izateko helburua duena. Hainbat gertakizuna estaltzen ditu, horien artean arruntenak: erretiroa, ezintasuna, langabezia, osasuna, heriotzak, suteak, etab. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-aurreikuspen osagarria eta nazioarteko [pentsio-funtsak](#) gauza bera dira.

**BASE mistoak** (*Mixed mutual provident socbazkideiety*) Modalitate desberdinetako aurreikuspen planak dituzte.

**BASE profesionala (modalitatea)** (*Professional pension fund*) Aurreikuspen plan profesionalak dituen BASE.

**BASEen erregistroa** (*Pension schemes registry*) BASEek Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza zuzendaritzak duen Erregistro Ofizial batean inskribatuta egon beharko dute, gizarte-aurreikuspeneko jarduerak gauzatzeko.

**BASEen Federazioa (Euskadiko...)** (*Federation of EPSV*) Haien borondatez elkartu diren Euskadiko BASEak elkartzen ditu, haien interesak defendatzeko eta aholkularitza tekniko eta juridikoaren zerbitzuak, berraseguru-zerbitzuak eta beste zerbitzu orokor batzuk eskaintzeko.

**Batzar Orokorra...** (*General assembly*) BASEak ordezkatzeko organo gorena, bazkide guztiek osatua; bazkideek badute konpromisarioen bidez ordezkatuak izatea. Erakundearen erabaki garrantzitsuenak hartzeaz arduratzen da, besteak beste, estatutuetako aldaketak, fusioak, absortzioak, disoluzioak onartzea, eta abar.

**Bazkide aktiboa** (*Active member*) BASE bateko bazkidea, ekarpenak egiten ari dena (edo bere izenean ekarpenak egiten ari dira) eta ondarea eta pentsio-eskubideak metatzen ari dena.

**Bazkide arrunta edo osoa** (*Ordinary member*) BASE bat euren mesedetan sortzen den pertsona fisikoen multzoa da, eta atxikitzeko borondatea adierazi dutenez eta behartzeko gaitasuna dutenez gero, Arautegian edo Estatutuetan aurreikusitako terminoetan egin dezakete.

**Bazkide babeslea** (*Sponsor*) BASEtik onura zuzenik jaso gabe hura mantentzen eta garatzen laguntzen duen pertsona edo entitatea. Horretarako entitateko gobernu-organoean parte hartzen du, estatutuetan aurreikusitako moduan. Figura hori arruntagoa da enpleguko BASEetan, zeinetan enpresaburuak haren ekarpenak eransten dizkie langileek egindakoei. Nahiz eta BASEaren [sustatzailea](#) eta babeslea bera izan, baliteke zenbait kasutan hori horrela ez izatea, eta babesle batek ekarpenik ez egitea hark sustatutako entitatean.

**Bazkide pasiboa** (*Passive member*) Prestazioa sortu duen eta, horren ondorioz, BASEaren kargura prestazioren bat jasotzen ari den BASEko bazkidea.

**Bazkide sustatzailea** (*Promoter*) BASEaren eraketa sustatzen duen subjektua, eta halakotzat hartuko da Plana sortzea bultzatzen duen edo garapenean parte hartzen duen erakunde, korporazio, sozietate, enpresa, elkarte, sindikatu edo kolektibo oro, edozein motatakoa izanik ere. Bazkideen aldeko ekarpenak egiteko edo ez egiteko aukera dauka, eta BASEko bazkidetzat hartzen da.

**Bazkidea** (*Member*) BASEan partaidetza edo interesak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. EAeko arautegian bazkideak dira hala babesle edo sustatzaileak nola bazkide osoak edo arruntak. BASEaren onuradun diren bazkide osoek pertsona fisikoak izan behar dute; bazkide babesleak, berriz, pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke.

**Benchmark.** “Erreferentea” edo “erreferentzia-puntua” bezala itzul daiteke; analistek ingelesezko esamoldea darabilte beti. Planen [errentagarritasuna](#) konparatzeko erabiltzen diren aurrez ezarritako baremoak dira. Errenta finkoko planentzat Altxorraren Letrak edo Estatuaren Bonuak erabiltzen dira *benchmark* gisa, baina errenta aldakorreko planentzat *benchmark* gisa Ibex 35 indizea edo merkatuko beste edozein indize erabiltzen da, batez ere europarrak edo globalak.

**Bermatua (Aurreikuspen-plan...)** (*Guaranteed pension plan*) Epe jakin batean errentagarritasun jakin bat bermatzen duen plana. Hori lortzeko, funtsak [produktu egituratueta](#)n inbertitzen dira

**Berme-funtsa** (*Guarantee funds*) Erakundearen zuzkiduren edo konpromisoen gainetik eraturako ondareak dira, egoera finantzario edo aktuarial txarrei aurre egiteko.

**Berrasegurua** (*Reinsurance*) Gertakizun bat estaltzen duen aseguru-enpresa batek (edo BASE batek) arrisku guztia edo horren zati bat haren gain hartzen duen beste aseguru enpresa batekin sinatzen duen kontratua. Lehen aseguratzailerak hartu duen arriskua mugatzea da helburua.

**Berraztertze aktuariala** (*Pension schemes review*) Prestazioren bat bermatzen duen aurreikuspen-planen finantza- eta aktuario-sistema aktuario batek berraztertu beharko du aldizka, soldaten eboluzioa, inbertsioen errentagarritasuna, giza taldearen hilkortasun-tasa, pasiboen biziraupena eta gainerako inguruabarrak kontuan izanik.

**Biziarreko errenta** (*Annuity*) [Prestazioa](#) jasotzeko era horren bidez, errenta finko zein aldakor baten ordainketa bermatzen da (hilerokoa, hiruhilerokoa, urterokoa...) pertsona bizi den bitartean. Biziarreko errenta ekarpen erregularren edo kapital baten ordainketaren bitartez lor daiteke. Prestazioak berehala has daitezke, edo ezartzen den etorkizuneko une jakin batean, geroraturako errenta gisa.

**Biziarreko errenta bihurtzeko faktorea** (*Annuity rate*) Kapitala bizi arteko errenta bihurtzeko aplikatzen den konstantea. Hipotesi aktuarialekin oinarrituz kalkulatzen da, eta horietan, beste aldagaien artean, biziraupen eta hilkortasun-taulak eta aktiboaren errentagarritasuna hartzen dira kontuan.

**Biziraupen eta hilkortasun-taulak** (*Mortality table*) Adinaren eta sexuaren arabera hiltzeko edo bizirik irauteko probabilitatea jasotzen duen koadroa. Pentsio-konpromisoak kalkulatzeko biziraupen-taula erabilienak GR-95 izenekoak izan dira, PER-2000 taula berriak sortu diren arte.

**Biziraupen eta hilkortasuneko unisex taulak** (*Unisex mortality table*) Gizon eta emakumeentzako hilkortasun-tasa bera duten biziraupen- eta hilkortasun-taula.

**Biztanleriaren mendetasun-tasa** (*Dependency ratio*) 65 urtetik gorako biztanleen eta lanean jarduteko adinean (15-64) dauden arteko erlazioa. Pentsio-sistemen iraunkortasunaren oinarritzko adierazletzat hartzen den aldagaia da.

**Borondatezko ekarpena** (*Voluntary contribution*). Ohiz kanpoko ekarpena, nahitaezko ekarpenaz gain bazkideak pentsio-fondoari ordaindu diezaiokeena, erretiroko etorkizuneko prestazioak handitzeko xedearekin.

## D

**Defizit aktuariala** (*Actuarial deficiency*) Egoera horretan, erakunde baten [aktibo](#)en balioa [prestazio-obligazio](#)en balorazioa baino txikiagoa da. Bien arteko aldea da defizit aktuariala.

**Derrama** (*Apportion*) Estatutueta hori aurreikusten duten BASEetan, gastu berezi edo ohiz kanpokoren bat haien artean banatzearen ondorioz, bazkideek ordaindu beharreko kuota-zatia da.

**Deskontu-tipoa** (*Discount rate*) Diruaren interes-tipoa, beste noizbait ordaindu edo jasotako diru-kopuru batek egun duen balioa kalkulatzeko erabiltzen dena.

**Diskriminazioa (Ez ...aren printzipioa)** (*Equal access right*) Berdintasun-printzipioa da, eta horren ondorioz antzeko baldintza dituzten langile edo giza taldeko kide guztiak tratamendu bera jaso behar dute prestazioak eskuratzerakoan.

## E

**EET zerga-sistema** (*EET system*) Pentsio-planen ezarpen-modu bat, zeinaren bitartez ekarpenak salbuetsita dauden (E), inbertsioagatik sarrerak eta ondarearen kapital irabaziak ere salbuetsita dauden (E), eta prestazioak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin zergapetuta dauden (T). Eredu arruntena da nazioartean, eta horixe dago indarrean BASEen eta Pentsio Plan eta Funtsen kasuan.

**Egituratuak (Produktuak...)** (*Structured finance*) Inbertsioaren etekinen egitura jakin bat (besteak beste, aldizkakotasunari eta kapital bermeari dagokienez) lortzeko, [eratorrien](#) erabilera konplexuan oinarrituta dagoen finantza-produktua. [Bermatutako aurreikuspen-planak](#) produktu horren adibidea dira.

**Egoitza soziala** (*Registered domicile*) BASEek entitatearen egoitza soziala ezarriko dute estatutueta, eta horrek, ezinbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan egon beharko du.

**Egotzitako ekarpena** (*Attributed contribution*) Zehaztutako ekarpenen planetan [bazkide babesleak](#) enplegatuen alde egindako ekarpenak. Bazkide arrunten ekarpenei ekarpen zuzenak deitzen zaie.

**Eguneratzea** (*Indexation*). Ekarpenen eta/edo prestazioen zenbatekoak doitzeko metodoa; bizitza-kostuan aldaketak kontuan hartzeko. Prezioen edo soldaten bilakaeran oinarrituta gaurkotzen dira (*Prices or wage indexation*)

**Eguno balioa** (*Present value*) Beste une batean ordaindu edo jasotzen den kopuru batek egun dirutan duen balioa. Hori kalkulatzeko kontuan izaten da epe horretan izan den (edo aurreikusten den) diruaren interes tipoa, [deskontu-tipo](#) ere deitzen zaion.

**Ekarpen eta prestazioen ziurtagiria** (*Contributions certificate*) BASEek urtero egiaztagiria bidali behar diote bazkide edo onuradun bakoitzari, urtean egindako [egotzitako](#) eta zuzeneko ekarpenei buruz, urte horren amaierako eskubideen balioari buruz eta, hala dagokionean, emandako prestazioen balioari buruz.

**Ekarpen zehaztuko plana** (*Defined contribution plan*) Ekarpenek eta haien etekinek metatutako kapitala beste prestaziorik ematen ez duen aurreikuspen-plana. Bestalde, prestazio maila zehatza bermatzen ez duen plan bat da.

**Ekarpena** (*Contribution*). Ikus: [Kuota](#).

**Enpleguko aurreikuspen-plana** (*Occupational pension plan*) Enpresaburu batek edo enpresaburuen talde batek sustatutako aurreikuspen-plana, bazkidetzat haien enplegiatuak dituenena. Plan horietara sartzeko beharrezkoa da lanbide- edo enplegu-harremana egotea bazkideen eta bazkide babeslearen artean. Normalean bazkideek eta bazkide babesleak egiten dituzte ekarpenak.

**Enpleguko BASE (modalitatea)** (*Occupational pension fund*) [Enpleguko aurreikuspen-planak](#) dituen BASEa

**Entitate gordailuzaina** (*Custodian*) Gutxienez, BASEaren aktiboak zaindu eta mantentzeaz —eta zaintza hori ziurtatzeaz— arduratzen den entitatea.

**Eratorriak (Tresnak)** (*Derivatives*) Finantza tresna bereziak dira, eta haien balioa beste aktibo edo adierazle baten jokabidean oinarritzen da. Azken horri azpiko aktiboa deitzen zaio. Inbertsioen arriskua estaltzeko erabili ohi dira, eta ezagunenak dira [aukera kontratuak](#) eta [geroeko kontratuak](#) dira. Kontratu horietan ondasunak edo balioak (azpiko aktiboak) erosteko aukera edo obligazioa dago, une jakin batean eta aldeztatik zehaztutako prezio batean.

**Eratutako funtsak** (*Set up funds*) Aurreikuspen-plan bateko [hornidura teknikoak](#) estaltzeko esleitzen diren [aktiboak](#) merkatuko balioa da.

**Ermandade** (*Friendly society*) Mutualismoaren eta gizarte-aurreikuspenaren erakunde tradizionala. BASEei buruzko 1983ko legea onartu zenean BASEen artean kokatu ziren.

**Errentagarritasun erreala** (*Real rate of return*) Inbertsio batek inflazioaren gaineratik duen errentagarritasuna.

**Errentagarritasun garbia** (*Net rate of return*) Errentagarritasun gordinetik gastu eta komisio guztiak deskontatuta lortzen den errentagarritasuna.

**Errentagarritasuna** (*Rate of return*) Denbora-epe jakin batean aktibo bat edukiz lortutako errenta. Lortutako guztizko irabazia plusbalio-erakoa (aktiboaren errebalorizazioa) edo errenta-erakoa (dibidenduak, interesak) izan daiteke. Ehunekoetan adierazi ohi da, errentagarritasun-tasa bezala

**Erreskatea** (*Redemption*) BASEetako bazkideek, [prestazioa kausatu](#) aurretik, [metatutako eskubideak](#) kobratzeko duten eskubidea. BASEei buruzko araudiak galdatzen du lehen ekarpena egin denetik hamar urteko gutxieneko epea igaro behar dela. Banako BASE guztiak baimentzen dute, eta enplegu-sistemek normalki ez dute baimentzen.

**Erretiratzeko legezko adina** (*Legal pension age*) Araudian ezarrita dagoen edo prestazioak erretiroa aurrez hartzeagatik murrizketa aktuarialik gabe lortzen diren erretiro-adina da. Gure kasuan 65 urterekin iristen da adin horretara.

**Erretiro aseguru kolektiboa** (*Pension insurance contract*) Ikus: [Erretiro-plan kolektiboa](#)

**Erretiro aurreratua** (*Early retirement*) Langile batek legezko erretiro-adina bete aurretik lan-jarduera guztiz uzten duenean gertatzen den egoera.

**Erretiro berantiar edo atzeratua** (*Late retirement*) Pertsona batek haren legezko erretiro-adina baino beranduago erretiratzea erabakitzen duenean gertatzen den egoera. Erretiroaren adina atzeratzea Gizarte Segurantzako sistema publikoen finantza-osasuna



hobetzeko gehien proposatzen ari den neurrietako bat da, eta eraginkorra, gainera; hori dela-eta atzeratutako pentsioen zenbatekoa igoz sustatzen ari da.

**Erretiro partziala** (*Phased retirement*) Egoera horretan, pertsona bati erretiroagatik prestazioak jasotzen uzten zaio, lanean (gehienetan lanaldi murriztuan) eta aurreikuspen-planerako ekarpenak egiten jarraitzen duen bitartean.

**Erretiro-plan kolektiboa** (*Pension insurance contracts*) Aseguru-kontratuak dira, horien bitartez pentsioengatik ekarpenak eginez aseguru-konpainia bati, eta horren truke pentsio-planaren prestazioak ordainduko dira bazkideak erretiro-adin jakin batera iristen direnean edo aurreikusitako gertakizunaren bat gertatzen denean. Estatuko araudian, kontratu hauen barnean hartuta daude hala aseguru kolektiboak nola mutualitateen aurreikuspen-planak. Banakako erretiro-plana ere badago, baina zerga-araubide okerragoa dute.

**Eskubide kontsolidatuak** (*Vested rights*) Egindako kotizazioetan oinarrituta, aurreikuspen-plan batean bazkide aktibo batek metatutako etorkizuneko prestazioak. Prestazio [zehaztuko enplegu-planen kasuan](#), pentsiorako eskubideak enpresan emandako zerbitzu-urteetan oinarrituta metatutakoak dira, eta [iragandako zerbitzu](#) ere deitzen zaie.

**Eskubideak eskualdatzea** (*Rights move*) BASEko bazkideek [metatutako eskubideak](#) BASEen artean mobilizatu ditzakete, eskubideen lekualdatzea deitu dugunaren bidez, edo, bestela, BASE beretik atera gabe aurreikuspen-plan batetik bestera eramanez ditzakete; eta horixe da, hain zuzen ere, eskubide-eskualdatzea deitzen dena.

**Eskubideak lekualdatzea** (*Rights transfer*) BASEko bazkideek BASE batetik bestera lekualdatu ditzakete [metatutako eskubideak](#), entitateko estatutuetan xedatzen denaren arabera. Prestazio zehaztuko enplegu-planen kasuan zailtasun handiagoa dago eskubideen mobilizazioa egiteko, planen konplexutasuna eta aniztasuna kontuan izanik. Pentsio osagarrien eskubideen eramangarritasunari buruzko Europar Batasuneko zuzentarau-proposamenak zailtasun horiek kentzeko helburua du, langileen mugikortasuna erraztearen.

**Eskubideen metatze- edo sortzapen-tasa** (*Accrual rate*) Horrela ezarrita daukaten [prestazio zehaztuko plan](#) batzuetan, bazkidea zerbitzuko urteak betetzen joan ahala erretiro-prestazioek duten igoera-tasa da. Adibidez, %1eko tasa batekin dagokion oinarriaren %35erako eskubidea eskuratzen da 35 urtetan kotizatuz gero.

**Eskubideen mobilizazioa** (*Cash equivalent transfer*) BASEek haien estatutuetan ezar dezakete bazkideek badutela eskubidea [metatutako eskubideak](#) beste BASEra [lekualdatzeko](#) edo beste aurreikuspen-plan batera [eskualdatzeko](#).

**Eskuratze-prezioa** (*Historical cost*). [Aktiboen](#) balioa neurtzeko metodo bat da, hartzeko prezioa baloratzekoa. Higiezinetan, erregulariki kopuru bat kentzen da higadura normala eta denbora direla medio. Aktiboen balorazioa egiteko metodo alternatiboa merkatuaren balioa da.

**Estaldura-kapitalak** (*Capital cover*). Sortutako prestazioak —baina ez sortze-bidean daudenak— estaltzeko esleitutako aktiboak. Planaren konpromisoen [kapitalizazio partzialerako](#) modalitateetako bat da. Praktikan ez daude baimenduta.

**Estalitako gertakizunak** (*Coverage*) BASEen aurreikuspen-planetan estaltzen diren arrisku-egoerak dira. Honako hauek izan ohi dira: a) bazkidearen erretiroa edo antzeko egoera. b) bazkidearen ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa, edo edozein lanetarako erabateko ezintasun iraunkorra eta ezintasun handia. c) bazkidearen heriotza; baliteke alarguntasun edo zurtasun prestazioa ekartzea, ondorengoen edo hautatukoaren alde.



**Estatutuak** (*Statutes*) BASEak zuzentzen dituzten arauak biltzen dituen agiria. Horietan ezartzen dira, besteak beste bazkideen eskubide eta betebeharrak, jaso ahal izango dituzten prestazioak, finantzatzeko modua, bazkide izateko baldintzak, gobernu-organoak eta zigor-araubidea.

**Etenaldian dagoen bazkidea** (*Deferred member*) Plan batean eskubideak dituen baina jadanik ekarpenik egiten ez duen BASE bateko bazkidea, oraindik prestazioak jasotzen hasi ez dena.

**Etendako eskubideak** (*Dormant rights*) Bazkide batek aurreikuspen-plan batean sortu dituen [hartutako eskubideak](#) edo etorkizuneko prestazioak, gertakizun bat iritsi aurretik bazkide aktiboa izateari uzten dionean eta beste plan batera eramaten ez dituenean. Bazkideak [prestazioa kausatzen](#) duenean eskuratuko ditu prestazio horiek.

**Ezintasun-taulak** (*Disability table*) Adinaren eta sexuaren arabera, ezindua izateko probabilitateak islatzen dituzte. Gure herrian bi taula daude: Orden Ministerial-77 (OM-77) eta Seguridad Social 90 (SS-90).

**Ezintasuna** (*Disability*) Pertsona batek nozitzen dituen urritasun anatomiko edo funtzionalek haren gaitasuna graduatiko edozeinetan —ezintasun partziala, osoa, erabatekoa, edo ezintasun handia— gutxitu edo ezeztatzen dutenean gertatzen den gertakizuna edo arrisku-egoera. Aurreikuspen-planak gertakizun hori estaltzen badu bazkideak ezintasun-pentsioa edo prestazioa jasoko du.

## **F**

**Finantza-errenta** (*Financial or certain annuity*) Prestazioa aldizkako errenta edo pensio gisa jasotzeko era, zeinaren bidez errenta edo pensioa denbora zehatz batean jasotzen den, onuradunaren bizi-iraupenarekin derrigorrez bat etorri gabe. [Biziarteko errentak](#), berriz, onuradunaren bizi osoan irauten du.

**Finantzazio-sistema** (*Financing system*) Bi eredu nagusi daude aukeran prestazio-konpromisoak finantzatzeko: [kapitalizazio-sistema](#) eta [banaketa-sistema](#). Horrek ez du esan nahi BASE batek ezin duela bitariko sistema baten bidez finantzatu, gertakizunen arabera biak erabiliz.

## **G**

**Gerokoen kontratua** (*Future contract*) [Eratorritako finantza-tresna](#) da, alderdiak etorkizuneko data batean hainbat ondare edo balore (azpiko aktiboa) erosi edo saltzera behartzen dituen kontratua.

**Gizarte aldetik arduratsua den inbertsioa** (*Social responsible investment SRI*) Finantza helburuak (errentagarritasuna, segurtasuna...) gizarte balioekin (gizarte-justizia, ingurumenaren babesa, garapen ekonomikoa, etab.) uztartzen saiatzen den inbertsioa. Europako gizarte funtsen artean joera handia dago inbertsio-mota horretan duten partaidetza handitzeko, haien inbertsio-zorroaren barruan.

**Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtza.** (*Social Security Reserve Fund*) Etorkizuneko balizko defizitei aurre egiteko, Gizarte Segurantzako sistema publikoek metatutako ondarea. Sektore publikoko pentsio-funtsak ez bezalakoak dira, horiek langile publikoak estaltzen dituzten zuzenbide pribatuko pentsio-fondoak baitira.

**Gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea** (*Mutual provident entity*) Mutualismoa Gizarte Segurantzaren osagarria den gizarte-aurreikuspeneko sistema da. Mutualitateek hainbat bereizgarri dituzte: 1) aseguru-izaera. 2) irabazi asmorik eza. 3) bazkideen beraien autokudeaketa. 4) xede soziala, arrisku-estalduraren jarduera nagusiaz gain gizarte-izaerako jarduera osagarri bat duelako. 5) estatutu-harremana, ez da beharrezkoa mutuaren eta mutualistaren artean kontratu-lotura bat egotea, aseguraturako mutualistaren harremana batzar nagusiak onartutako estatutuen bitartez ezartzen delako.

**Gobernu Batzordea** (*Governing body*) BASEaren kudeaketaren organo arduradun gorena da. Funtzionamenduaren eta gainbegiratzearen erantzukizunak erakunde baten barnean batzorde ezberdinetan banatuta daudenean, gobernu-batzordea da erakundearen organo betearazlea. Estatuko arauen peko pentsio-funtsen kasuan lan hori erakunde kudeatzaileak egiten du. Kasu honetan badago pentsio-funtsaren edo -planaren Kontrol Batzordea, kontrolatzeko eta gainbegiratzeko egitekoak dituen eta erakunde kudeatzailearen jarduna onartzen duena.

**Gobernu ona** (*Governance*) Enpresaren —BASEaren, gure kasuan— kudeaketa onerako adituek oro har onartutako jokaera-kodeak. Horiek eragina dute, besteak beste, gobernu organoen prestakuntzan eta funtzionamenduan, arduren identifikazioan, barne-kontrolen ezarpenean, interes-gatazketan, kontu-emateetan.

**Gordailuzaina.** Ikus: [Entitate gordailuzaina.](#)

## H

**Hartutako eskubideak** (*Acquired rights*) Ikus: [Eskubide kontsolidatuak.](#)

**Hautagarritasuna** (*Eligibility*) Edozeinek aurreikuspen-plan baten bazkide izateko edo BASE bateko gobernu organoetako kide izateko bete behar dituen baldintzen multzoa. Lehen adieraren kasuan, enpleguko planetan adinari eta enpresako antzinatasunari buruzko hainbat baldintza eskatu ohi dira enpresako aurreikuspen-planeari sartu ahal izateko. Gai hori da pentsio osagarrien eskubideen eramangarritasunari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauaren proposamenak bateratu nahi dituenetako bat da.

**Hedge fund** Ezohiko inbertsio funtsa da, inbertsioen arriskua murrizteko inbertsio-modu desberdinak erabiltzen dituen. Horretarako, ohiko funtsek dituztenak ez bezalako estrategiak erabiltzen dituzte, hala nola: epe laburreko eragiketak, arbitraje-eragiketak, produktu eratorriak eta palanka-efektu gogorra. Horren ondorioz, finantza-merkatuen ebaluazioarekin bat ez datozen errentagarritasunak ditu. Pentsio funtsek gero eta gehiago erabiltzen dituzte estrategia horiek, inbertsioengatiko arriskuei aurre egiteko.

**Heriotza BASE (modalitatea)** (*Undertaker`s mutual provident society*) Bazkideen heriotzagaratik sortzen diren gastuak ordaintzeko helburua duen BASE. Gertakizun hori baino ez ohi dute estaltzen.

**Hipotesi aktuarialak** (*Actuarial assumptions*) Iguripen eta aurreikuspenak dira, aldagai biometrikoei buruzkoak —bizitza-luzera, ezintasuna, biziraupena...—, eta ekonomia eta

finantza arlokoak —soldata, inflazioa, aktiboen etekinak...—. Horiek guztiak aktuarioak egiten ditu [balorazio aktuariala](#) kalkulatzeko.

**Hornidura matematikoak** Ikus: [Hornidura teknikoak](#)

**Hornidura teknikoak** (*Technical provision*) BASEak bazkideekin dituen obligazioak dira. Etorrizuneko prestazioen egungo balioari egiteke dauden ekarpenen egungo balioa kenduta lortzen den kopurua da. Prestazioaren sortzapenaren unean kalkulatzeko bada, haren balioa etorkizuneko prestazioen egungo balio bera izango da.

## I

**Inbertsio-politika** (*Investment policy*) Ikus: [Inbertsio-printzipioen adierazpena](#)

**Inbertsio-printzipioen adierazpena** (*Statement of investment principles (SIP)*). BASEaren adierazpen idatzi eta publikoa, aurreikuspen-planetan kudeatzen dituen aktiboak inbertitzeko politika estrategikoari buruzkoa. Hiru urtean behin berraztertu beharko da gutxienez.

**Inbertsioak** (*Investment*) Testu askotan inbertsio hitza [Aktiboen](#) sinonimotzat jotzen den arren, behar bezala esanda, inbertsioa aktibo batean gauzatzen edo immobilizatzen den errenta-fluxua da.

**Inbertsioen kudeaketa aktiboa edo pasiboa** (*Active or pasive investment management*) Inbertsioen kudeaketa aktiboa egiteko zehatzak erosi eta saldu behar dira, merkatuan oro har dagoen baino etekin handiagoa lortzeko. Kudeaketa pasiboaren bidez adierazle edo markatu bat jarraitu nahi da arriskua mugatu eta kostuak murrizteko; hori dela-eta, merkatuko baino errentagarritasun txikiagoa lortuko du gastuak eta komisioak deskontatu ondoren.

**Informazio eta publizitate arauak** (*Disclosure regulations*) BASEen Gobernu Batzordeek bazkideei, herritarrei eta erakunde ofizialei aurreikuspen-planen buruz informazioa ematerakoan jarraitu behar dituzten arauak.

**Interes-tipo teknikoa** (*Interest rate*) [Hornidura teknikoak](#) kalkulatzeko, [pentsioengatiko konpromisoak](#) deskontatzen zaizkion deskontu- edo interes-tipoa. Baita ere, gertakizunaren unean prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko erabiltzen den tipoa.

**Iragandako zerbitzuak** (*Past service*) Data zehatz baten aurretik emandako zerbitzuak dira, pentsioa jasotzeko eskubidearen sortzaile gisa kontuan izaten direnak. Bazkidearen ikuspuntutik, [hartutako eskubideen](#) balioa da. BASEen ikuspuntutik, [pentsioengatiko konpromisoen](#) edo jadanik sortutako horniduren balioa da.

**Itxaronaldia** (*Waiting period*) Langileek, enpleguko aurreikuspen planean sartu aurretik, enpresan enplegatuta igaro behar duten denbora. Pentsio osagarrien eskubideen eramangarritasunari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauak urte beteko gehienezko itxaronaldia proposatzen du.

## K

**Kapitala** (*Capital*) Prestazioa kobratzeko modalitateetako bat: prestazioa behin kobratzea, aldi bakar batean.

**Kapitalizatua (Aurreikuspen plan...)** (*Funded pension plan*) Aurreikuspen-plana, enplegukoa, banakakoa, zein profesionala, planaren obligazioak finantzatzeko erabiltzen diren aktiboak metatzen dituena. [Banaketa sistema](#) duten planei kontrajartzen zaie; izan ere, haietan bazkideen ekarpenak ez dira metatzen, eta ekitaldiko prestazioak ordaintzeko erabiltzen dira.

**Kapitalizazio kolektiboa** (*Collective capitalization*) Bazkide guztien ekarpenak kopuru berekoak dira, pertsona bakoitzaren ezaugarriak alde batera (adina, sexua, egoera zibila, eta abar). Ekarpene horiek kolektiboki metatzen dira, ondare bakar batean, eta horretatik ordainduko dira planean definitutako etorkizuneko prestazioak.

**Kapitalizazio partziala** (*Partial capitalization*) Finantziario-sistemetakoa bat, non konpromisoaren edo hornidura osoaren zati bat baino ez dagoen kapitalizatuta.

**Kapitalizazio-maila** (*Funding level*) Aktiboen balio erlatiboa prestazio mugatuko aurreikuspen-plan baten pasibo edo konpromisoekiko, normalean ehunekoetan ematen dena.

**Kapitalizazio-ratioa** (*Funding ratio*) Ikus: [Kapitalizazio-maila](#).

**Kapitalizazioa** (*Capitalization*) Finantziario-metodoa, kuotak, ekarpenak eta haien etekinak ondare batean metatzean datzana, planak sortzen dituen etorkizuneko prestazioak ordaintzeko helburuarekin.

**Kaudimen-marjina** (*Solvency margin*) [Prestazio zehaztuko planetan](#) planari segurtasun eta kaudimen handiagoa emateko eduki behar diren zuzkidura teknikoetan konprometitutako berezko funtsak edo ondare erantsia. BASEen eta Pentsio Plan eta Funtsen kasuan zuzkidura teknikoaren %4 da, gutxienez.

**Kidea** (*Member*) Ikus [Bazkidea](#)

**Komisio-gastuak** Ikus: [Administrazio-gastuak](#)

**Kontu-ikuskaria** (*Auditor*) Kontu-ikuskaritza egiteko eskatzen zaion pertsona edo entitate kualifikatua.

**Kontu-ikuskaritza** (*Audit.*) Erakundearen kontabilitatearen egitasuna eta finantza-egoera egiaztatzea, oro har onartutako metodoen arabera. BASEek kontu-ikuskaritzaren pean jarri behar dute euren jarduera, eta hori egiten duten kontu-ikuskariak profesional aditu eta independenteak izan behar dute.

**Kostaprezioaren edo eskurapen-prezioaren balioa** Aktiboak baloratzeko irizpidea; horren arabera, eskuratu zireneko prezio berean kontabilizatzen dira.

**Kudeaketa-txostena** (*Annual report*) BASEaren funtzionamenduan interesa duten alderdi guztiak informatzeko, Gobernu Batzordeak urtero prestatu behar duen txostena. Entitatearen egoeraren irudi zehatza emateko balio izan dezaketen gai garrantzitsu guztiak jasoko ditu. Entitate horiek derrigorrez aurkeztu behar dituzten [urteko kontuen](#) parte dira.

**Kuota** (*Contribution*) BASE bati bazkide aktiboak edo bazkide babesleak aldizka ordaintzen dion kopurua, ematen dituen prestazioak jasotzeko eskubidea hartzeko helburuarekin.

## L

**Lehentasunezko obligazioak edo kredituak** (*Priority liabilities*) BASE edo pentsio-plan bat likidatzen bada, ordainketa-obligazio batzuk besteen gainetik daude. Adibidez, pasiboek lehentasuna eman ohi zaie, euskal araudiak egiten duen bezala.

**Likidezia-koefizientea** (*Liquidity ratio*) Sistemaren kudeaketaren ondorioz sortzen diren ordainketei aurre egiteko BASEak duen diru likidoaren edo eskudiruaren ehunekoa da.

## M

**Merkatuko prezioaren balioa** Aktiboak baloratzeko irizpidea; horren arabera une horretan merkatuan duten prezio beran kontabilizatzen dira.

**Metatutako eskubideak** (*Accrued benefits*) Ikus: [Eskubide kontsolidatuak](#).

**Mutualitatea** (*Friendly society*) Mutualismoaren eta gizarte-aurreikuspenaren erakunde tradizionala. BASEei buruzko 1983ko legea onartu zenean [BASE](#)en artean kokatu ziren.

## N

**Nahitaezko ekarpena** (*Mandatory contribution*). Planaren arauak kontuan izanik, bazkideari (edo bazkidearen izenean diharduen entitate bati) ordaintzeko eskatzen zaion ekarpen maila.

## O

**Obligazio edo horniduren balioa** (*Value of liabilities*) Obligazio aktuarialak edo [hornidura teknikoak](#) prestazioen kostuaren egungo balioa dira. Bestela esanda, azken prestazioaren balioaren eta oraindik ordainduko diren ekarpenen arteko diferentzia da. Ekarpen zehaztuko sistemetan, data jakin batean metatutako kapitala da.

**Ohiz kanpoko ekarpena** (*Extraordinary contribution*) Hori onartzen duten BASEetan, bazkideak edozein momentutan egindako ekarpenaren kopurua, berak zehaztutakoa.

**Ondarea** (*Wealth*) Ikus: [Aktiboak](#)

**Ondareen kudeatzailea** (*Asset manager*) Egiteko horretarako eskuordetzen denean, BASE baten aktiboetan fisikoki eskuartzeko ardura duen pertsona edo erakunde espezializatua. Ondareen kudeatzaileek BASEaren inbertsio-estrategia ere ezarri dezakete.

**Onuraduna** (*Beneficiary*) [Bazkide aktibo](#) edo [pasibo](#) baten heriotzaren ondorioz prestazioa jasotzeko eskubidea hartzen duen pertsona.

**Onuradunak izendatzea** (*Expression of wish*) Agiri horren bidez bazkideak BASEari jakinarazten dio nork jaso behar duen prestazioa bazkidea hiltzen bada, hori guztia

aurreikuspen-planak heriotza, alarguntza edo eratorritako bestelako prestazioren bat aurreikusten badu.

**Oreka berreskuratzeko plana** (*Recovery Plan*) Aurreikuspen-plan bat [defizit aktuariala](#) duenean, BASEak oreka berreskuratzeko plana egin behar du, eta horren barruan, [eratutako funtsen](#) eta [hornidura teknikoan](#) artean dagoen defizita amortizatzeko programa egongo da.

## **P**

**Partaidea** (*Member*) [Pentsio Plan eta Funtsei](#) buruzko arautegian, pentsio planen subjektu eratazaileak dira. Pertsona fisikoak dira, eta plana haien interesetarako sortzen da, haiek ekarpenak eginda zein egin gabe. Euskal arautegian BASEko [bazkide arrunta](#) da.

**Pentsio Funtsa** (*Pension funds*) [Pentsio-plan](#) bati egindako ekarpenekin erosten diren aktiboen multzoa, plan horretan ezarritako prestazioak finantzatzeko helburua baino ez duena. Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Espainiako arauen arabera legez banandutako funtsak dira, ez dute nortasun juridikorik, finantza-zerbitzu emaile espezializatu batek kudeatzen ditu (pentsio funtsen kudeatzailea) funtsaren aktiboen gaineko legezko jabetza-eskubidea duten plan edo funtseko partaidetzadunen izenean. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, [BASE](#) eta [aurreikuspen planek](#) betetzen duten pentsio-funts eta -planen helburua.

**Pentsio Funtsen Erakunde Kudeatzailea** (*Pension fund managing company*) Pentsio Plan eta Funtsen kasuan, Pentsio-funtsaren administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen den pertsona juridikoa da, kontabilitatea eramaten du, kontu ematen du eta [erakunde gordailuzaina](#) kontrolatzen du. BASEen kasuan, egiteko horiek [gobernu batzordeari](#) dagozkio, eta horiek kudeaketa hirugarren batekin kontratatatu ahal izango dute.

**Pentsio Plana.** (*Pensions plan*) Plan horren bitartez zehazten dira, batetik, bertan ezarritako erretiro, ezintasun, biziraupen eta abarreatutako prestazioak jasotzeko onuradunek duten eskubidea; eta, bestetik, kotizatze obligazioak eta ondarea edo pentsio-funtsa eratu eta funtzionatzeko arauak. Haren prestazioak ez dira Gizarte Segurantzako ordezkoak, eta izaera pribatu eta osagarrikoak dira.

**Pentsio planen gainbegiralea** (*Pension regulator*) Pentsio-sistemen funtzionamendua arautu eta kontrolatzeko eskumena duen gobernuko agintari bat da. BASEen eta haien aurreikuspen-planen kasuan, egiteko hori Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari dagokio.

**Pentsio-eskubideak hartzea** (*Benefits acquisition*). Enpleguko planetan gutxieneko aldia igaro behar da planaren barruan pentsio-eskubideak hartzen hasi aurretik. Kalifikazio epe hori oso aldakorra da herrialde batetik bestera; hori dela-eta, “pentsioak jasotzeko eskubideen eramangarritasuna hobetzeari buruzko” Europar Batasuneko zuzentarauak pentsioa jasotzeko eskubide horiek planetan bi urte igarotzen diren unetik kontsolidatzea proposatzen du.

**Pentsio-eskubideen eramangarritasuna** (*Pension rights portability*) Enpresaz aldatzen den langileak uzten duen enpresako aurreikuspen-planean [hartutako pentsio eskubideak](#) enpresa berriko aurreikuspen-planera lekualdatzeko duen eskubidea. “Pentsio osagarrien eskubideen eramangarritasunari buruzko” Europar Batasuneko zuzentarau-proposamenaren arabera, langileak aukeratu ahal izan beharko luke eskubide horiek plan zaharrean [etenaldian](#) uztearen edo berrira [lekualdatzearen](#) artean.



**Pentsioa jasotzeko eskubidea** (*Pension right*) Bazkideak pentsio edo prestazioa jasotzeko duen eskubidea, aurreikuspen-planean ezarritako baldintzak betetzen direnean. Hau da, [prestazioa kausatzen](#) den unean osatzen den eskubidea da.

**Pentsioa kalkulatzeko lan-denbora** (*Pensionable service*) Enpresan emandako lan-denbora edo zerbitzaldia, pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen dena.

**Pentsioaren egungo balioa** (*Pension present value*) Etorkizunean ordaindu edo jasoko den pentsio bati egungo dirutan ematen zaion balioa. Hori kalkulatzeko, diruaren [deskontu-tipoaz](#) gain, kontuan izan behar da pentsioa ez ordaintzeko probabilitatea (arriskua), bazkidearen heriotzagatik.

**Pentsioen ordezkatzetasa** (*Replacement rate*) Gizabanakoen kasuan, hasierako pentsioaren ehunekoa azken soldatarekiko. Biztanleriaren kasuan, batez besteko pentsioaren ehunekoa une jakin bateko batez besteko soldata edo errentarekiko.

**Pentsioengatiko konpromisoak** (*Value of liabilities*) Enpresak langileekin hartutako obligazioak dira, hitzarmen kolektiboan edo xedapen baliokidean jasotakoak, prestazioak ematea edo enpleguko aurreikuspen-planetan —edo aurreikuspeneko beste edozein baliabidetan— estalitako gertakizunengatiko ekarpenak egitea helburu dutenak.

**Pentsioengatiko konpromisoak kanporatzea** (*Assets ring-fencing*) Prozesu horren bitartez, enpresek beren ondaretik pentsioak finantzatzen dituzten aktiboak banantzen dituzte, eta erakunde independenteei edo kanpoko kudeatzaileei beren langileen aurreikuspen-planen kudeaketa esleitzen diete. Horrekin, langileek fondo horien kudeaketa txarra edo, enpresak porrot eginez gero, ondarea galtzea saihesten dute.

**Plan integratua** (*Integrated scheme*) Prestazioa kalkulatzeko beste edozein aurreikuspen-sistemak —publikoak zein pribatuak— ordaindu beharreko prestazioa kontuan izaten duen aurreikuspen-plana. Beste sistema horien osagarria da, eta ematen duen prestazioa horiekien bateratzen da.

**Prestazio geroratua** (*Deferred benefit*) Gertakizuna jazo osteko data batean jasotzen hasten den prestazioa da. Prestazioa jasotzeko eskubidea izan arren, bazkideak kobratzearen hasiera geroratu egiten du.

**Prestazio zehaztua** (*Defined benefit plan*) Ikus: [Prestazio zehaztuko plana](#)

**Prestazio zehaztuko plana** (*Defined benefit plan*) Aurreikuspen-plan mota, onuradunek jaso beharreko prestazio guztien zenbatekoa aldeztatik zehaztu edo aurreikusitako kopuru gisa ezartzen duena. Prestazioa zehaztuta, kalkulu aktuariarekin zehaztuko dute ekarpenen zenbatekoa.

**Prestazio zehaztuko plan “hibridoa”** (*“Hybrid” DB plan*) Prestazio zehaztuko plan horren prestazioak ekarpenei esleitutako etekinaren arabera dira. Etekin-tasa hori planeko arauetan zehaztu behar da, eta aktiboen benetako etekina kontuan izan gabe zehaztu daiteke, besteak beste, tipo finkoarekin, erreferentziako merkatu bati indexatua eta soldatari edo mozkinen hazkunderari lotuta; edo, bestela, aktiboen benetako etekinaren arabera kalkulatu da, planaren arauetan zehaztutako gutxieneko etekin bermatuarekin.

**Prestazio zehaztuko plan “mistoa”** (*“Mixed” DB plan*) Banandutako bi osagai dituen aurreikuspen plana, osagai bat prestazio zehaztuko da, eta bestea ekarpen zehaztuko; alabaina, biak plan beraren parte balira bezala hartzen dira. Era berean, mistoak dira hala ekarpena nola prestazioa zehazten dituztenak, dagozkien doikuntza-tresnekin.

**Prestazio zehaztuko plan “tradizionala”** (*Traditional defined benefit plan*) Prestazio zehaztuko plan mota ohikoena da. Haren prestazioak kalkulatzeko soldatak (lan-bizitzako batez besteko soldata izan zein azken soldata izan), enpleguaren iraupena edo bazkidearen lan-bizitzako beste ezaugarriak hartzen dira kontuan.

**Prestazio-eskabidea** (*Benefit request*) Agiri horren bidez BASEko bazkideak ezartzen du nola eta noiz jaso nahi duen metatutako ondarea, aurreikuspen-planaren arauak kobratzeko berariazko modua aurreikusten ez badute behintzat.

**Prestazio-obligazioak** (*Liabilities*) Obligazio aktuariak edo [zuzkidura teknikoak](#) BASEko bazkideek metatutako prestazioen kostuaren egungo balioa dute. Une jakin batean, azken prestazioaren balioaren eta oraindik ordaindu egingo diren ekarpenen arteko diferentzia da. [Ekarpen mugatuko](#) sistemetan, data jakin batean metatutako kapitala da. BASEaren prestazioengatiko obligazioak bat datoz haren bazkideek metatutako eskubideekin.

**Prestazioa** (*Benefit*) Babestutako gertakizuna (erretiroa, heriotza, ezintasuna etab.) gertatzen denean BASE batek edo gizarte-aurreikuspeneko sistema publiko zein pribatu batek bazkide bati edo haren onuradunei egiten dien ordainketa. Gizarte Aurreikuspeneko sistemen prestazio ohikoenak pentsioak izan ohi dira; hori dela-eta, askotan prestazioak eta pentsioak sinonimotzat jotzen dira testuetan.

**Prestazioa geroratzea** (*Benefit postponement*) BASE bateko bazkideak badauka prestazioa gertakizunaren osteko data batean jasotzen hastea erabakitzea eta pentsioa ez kobratzea, nahiz eta kobratzeko eskubidea sortua egon. Prestazio geroratutzat jotzen da.

**Prestazioa kausatzea** (*Immediate entitlement*) Prestazio bat jasotzeko eskubidea hartzea, eskatutako baldintzak, aurreikuspen-planean ezarritakoak, betetzen direnean.

**Prestazioak kobratzeko modua: kapitala, errenta eta mistoa** (*Ways of payment of the benefits :lump sum, annuity and mixed*) Prestazioa kausatzean bazkideak hura jasotzeko aukeratzen duen modalitatea da. Kapital gisa jasotzea aukera dezake, prestazio osoa txanda bakar batean jasotzen badu, edo errenta gisa, prestazioa erregulariki kobratzen badu, edo modu mistoan, prestazioen zati bat kapital gisa eta beste zati bat errenta gisa jasotzea aukeratzen badu. Aldi berean, errenta [biziarteko errenta](#) izan daiteke, edo, bestela, [finantza-errenta](#).

**Prestazioen mobilizazioa** (*Benefits transfer*) BASE baten bazkide aktiboek metatutako eskubideak mobilizatu ditzaketen bezala, BASE baten bazkide pasiboek eta onuradunek gauza bera egin dezakete jadanik sorrarazitako prestazioekin, eta beste entitate batera lekualdatu.

**Profesionala (Aurreikuspen-plan...)** (*Professional pension plan*) Edozein elkartek edo sindikatuk sustatutako aurreikuspen-plana da. Plan horien bazkideak elkarte edo sindikatu horietako kide edo afiliatuak dira.

## **S**

**Sartzeko gutxieneko adina** (*Entry age*) Langilea enpleguko aurreikuspen-plan batean bazkideatu daitekeen gutxieneko adina da. Oso arau desberdinak daude gai honi buruz Europako herrialdeetan; hori dela-eta, Europar Batzordeak eramangarritasunari buruzko zuzentarauan proposatzen duenez, gutxieneko adin hori ezin da 21 urtetik gorakoa izan.

**Sistemaren mendetasun-tasa** (*System dependency ratio*) Prestazioak jasotzen dituzten bazkide pasiboen eta kotizatzen eta etorkizuneko prestazioetarako eskubideak metatzen ari diren bazkide aktiboen arteko ratioa.

**Sortze-bidean dauden prestazioak** (*Building up benefits*) Kotizazio bidez eskuratzen ari diren prestazio-eskubideak, babestutako gertakizuna jazotzen denean aurreikuspen-planaren arautegian zehazten den moduan sorraraziko direnak. [Hartutako eskubideak](#) diren arren, oraindik osatu ez diren eskubide-iguripenak dira. Jadanik sortutako prestazioekin kontrajartzen dira.

**Sustatzailea** Ikus: [Bazkide sustatzailea](#)

**Suteetako BASE (modalitatea)** (*Fire mutual provident society*) Bazkideen ondasunetan suteek sorrarazitako kalteak estaltzen dituzte. Heriotza BASEak bezala, gertakizun hori baino ez ohi dute estali.

## T

**Tratu-berdintasunaren printzipioa** (*Equal treatment*) Europar Batasuneko araudien indarrez, pentsioei buruzko legeak aldatu egin ziren, kasu askotan bi sexuak modu berean tratatu behar direla ezartzeko. Arauek onartzen dute pentsio-plan (gure kasuan, aurreikuspen-plan) baten sustatzaileak ekarpen handiagoak egitea emakumeengatik, haien bizi-itxaropen luzeagoa konpentsatzeko.

**Txosten aktuariala** (*Actuarial report*) Kudeatzen dituen aurreikuspen-planen [balorazio aktuarialean](#) oinarrituta aktuarioak prestatzen duen txostena, BASE baten finantza-egoera deskribatzen duena.

## U

**UTB (Urteko tasa baliokidea)** (*Annual percentage rate APR*) Edozein interes-tasak edo errentagarritasun bakunak urtea oinarritzat hartuta duen adierazpena. Inbertsio-epea urte betekoa izango balitz aktiboetatik lortuko litzatekeen errentagarritasuna da. Adibidez, hiru urteko epe batean lortutako %65eko errentagarritasun arrunt bat %18,7ko UTB baten baliokidea da; 3 urteko epe batean %2,5eko errentagarritasun arrunt bat urteko %10,38ren baliokidea da.

**Urteko kontuak** (*Annual accounts*). Gobernu-organismoek onartzeko BASEek aurkeztu behar dituzten galeren eta irabazien kontua, egoeraren balantzea eta ekitaldiko memoria.

**Urteko memoria** (*Annual report*) Ikus: [Kudeaketa-txostena](#)

**Urteko pentsioaren kalkulua** (*Pension forecast illustration*) Bazkide batek lortu dituen edo lortuko dituela aurreikusten den erretiroagatiko prestazioen adierazpena da. Urteko pentsioaren balioespena iguripen edo iragarpen jakin batzuetan oinarrituta egongo da. Beraz, bazkideak berez lortzen dituen prestazioak segur aski ezberdinak izango dira. Iragarpen horiek ekonomiaren eta finantzen, eta araudien aldagaiei, eta karrera profesionaleko aldagaiei buruzkoak izan ohi dira.

## **Z**

**Zehaztuko Ekarpena** (*DC Defined Contribution*) Ikus: [Ekarpen zehaztuko plana.](#)

**Zuzkidura teknikoak.** Ikus: [Hornidura teknikoak](#)